

# Musikarekin gozatu!

¡Disfrutar con la música!

2022-2023

On-line edo  
Herriko Udaletxean.  
On-line o en Ayto.



**Matrikulazioa:**  
maiatzaren 23tik ekainaren 5era  
*del 23 de mayo al 5 de junio*



[www.aralar.org](http://www.aralar.org)  
[info@aralar.org](mailto:info@aralar.org)  
672122472

## **Matrikulazio PROZEDURA**

### **BALDINTZA OROKORRAK eta** **BEHARREZKO INFORMAZIOA**

### **2022-2023 IKASTURTEA**

Kaixo!

Hurrengo ikasturteari begira, matrikula gauzatzerako orduan jakin beharreko informazioa igorri nahi dizuegu. Dokumentu honetan, matrikulazio kanpainaren alderdi garrantzitsuenak azalduko ditugu, hori bai, guztia zehatz-mehatz adierazita izango duzue inprimakiaren oinarrietan.

## I.- MATRIKULAZIO EPEAK eta INFORMAZIOA

# 2022ko maiatzaren 23tik ekainaren 5era

Baldintza orokorren oinarriak gure webgunean dituzue:

[www.aralar.org](http://www.aralar.org)

**Eta Araitz, Basaburua, Betelu, Goizueta, Larraun, Leitza, Lekunberri eta Ultzamako Udaletxeetako bulegoetan.**

**Atez eta Odietako ikasleek, Ultzamako Udaletxean gauzatu beharko dute matrikula**

## II. MATRIKULAZIO PROZEDURA:

**Matrikula egiteko aukerak, guztientzat berdinak izango dira:**

**1.- Klikatu ondorengo estekan eta formularioa bete:**

<https://forms.gle/BsELfgR9CHVFvniB9>

**2.- Zuen zonaldeko Udaletxean dauden inprimakia bete eta bertan entregatu.**

### OSO GARRANTZITSUA:

- a) Familia ugariak matrikularen zenbatekoan %50eko deskonturako eskubidea dute eta %5a berriz hileroko kuotetan. Horretarako familia ugariko txartelaren fotokopia helarazi beharko diguzue.
- b) Guraso bakarreko familien kasuetan %6eko beherapena egingo da matrikula zein hileroko kuotetan.
- c) Ikasle jubilatuak %10ko beherapena egingo da matrikula zein hileroko kuotetan.
- d) Desgaitasunen bat duten ikasleen kasuan %6eko beherapena izango da matrikula zein hileroko kuotetan.
- e) Aurreko puntuetan aipatutako kasu guztietan agiri ofiziala aurkeztu beharko da deskontuak aplikatzeko.
- f) Matrikula formulario bidez egin baduzu, google inprimakiak izeneko egiaztagiri automatikoa jasoko duzu. Matrikula paperean bete baduzu, honen egiaztagiria jasoko duzu. Bi kasuetan jasotzea komeni da.

## III.- PREZIOAK

Matrikulazioaren inguruko baldintzak agertzen diren oinarrietan daude zehaztuak. Momentuz, ikasturte honetan indarrean dauden prezioak dira.

Matrikula onartua dagoela ziurtatu ondoren, honi dagokion kantitatea, uztaila/abuztuan zehar kobratuko zaizue.

## IV.- MATRIKULAREN BAJA

Ekainaren 30a baino lehen matrikula deuseztatzeko aukera izango duzue. Eskaera hau, idatziz egin beharko da. Plaza gordetzeari dagokionean, matrikula, goian adierazitako epean egiteko gomendioa luzatzen dizuegu, ondoren, arrazoiak arrazoi, berau bertan behera uzteko erabakia hartzeko aukera izango baituzue. Matrikula adierazitako epe barruan bertan behera uzten bada, matrikularen diru kopurua ez da inolaz ere kobratuko.

## **V.- TALDE INSTRUMENTALA AUKERATZEAN KONTUTAN IZATEKOAK**

Talde Instrumentala aukeratzeko orduan, jakin beharreko informazio garrantzitsua helarazten dizuegu:

<b>Maila</b>	<b>Ikasgaia</b>		<b>Aukerak</b>
BZ3	Talde	<p><u>Derrigorrezkoa izanik</u> abesbatza edo formazio instrumentala aukeratu ahal izango da. Zonalde bakoitzean, ikasle kopurua, eskatutako formazioa osatzeko behar adinakoa ez bada:</p> <p>a) Ikasleari, abesbatza edo eskatutako formazioa dagoen beste zonalde batera joateko aukera eskainiko litzaioke.</p> <p>b) Ikaslearen zonaldean, jada sortua den abesbatza edo beste mota bateko formazioan parte hartzeko aukera eskainiko litzaioke.</p>	<p>Abesbatza, Fanfarrea, Triki Taldea.</p> <p>Goizueta eta Basaburuan, egungo talde eredu ere eskainiko litzateke.</p> <p>(1)Ikasgai bat baino gehiago aukeratu daiteke.</p>
GZ1	Talde Instrumentala	<u>Aukerakoa</u>	<p>Abesbatza Gaztea, Fanfarrea, Triki Taldea, Pop-Rock.</p> <p>(2) Ikasgai bat baino gehiago aukeratu daiteke.</p>
12 urtetik gorakoak	Talde Instrumentala	<u>Aukerakoa</u>	<p>Abesbatza Gaztea, Fanfarrea, Triki Taldea, Pop-Rock.</p> <p>(3) Ikasgai bat baino gehiago aukeratu daiteke.</p>

- (1) - Ikasgaia dohainik eskainiko da.
  - Ikasleren batek bigarren ikasgai bat aukeratu nahi badu, ordainketa sinbolikoa\* suposatuko duen inskripzio baten bitartez izango da.
- (2) - Atal honetako ikasgai bakoitzak ordainketa sinbolikoa\* suposatuko duen inskripzio bat izango du.
- (3) - Ikasgai honek, orain arte bezala hileroko kuota izango du.
  - Ikasleren batek bigarren ikasgai bat aukeratu nahi badu, ordainketa sinbolikoa\* suposatuko duen inskripzio baten bitartez izango da.

\*Inskripzioaren kostu sinbolikoa: 15 €ko ordainketa bakarra izan da aurtengoa.

Eskerrik asko.

*Aralar Udal Musika eskolak Araitz, Basaburua, Betelu, Goizueta, Larraun, Leitza, Lekunberri eta Ultzamako udaletxeen babesa du. Atez eta Odietako udaletxeen laguntza ekonomikoa du. Nafarroako Gobernuaren laguntza ekonomikoa du.*